

EGIAZKO IRAULTZA

Oraiko Aita Saintüaz honki hanitx entzüten da bazter orotan, bena ezpiritü xorrotxenganik kritika hau ere : ez dela iraültzalea. Hala izan behar ote lüke ? Ez zait üdüri mezü berririk asmatü behar düan. Kiristien aldetik oihüstatützeko düguna, düala bi mila urte erranik izan zen, eta izaten ahal den mezüririk iraültzaleena da : nornahi gure бүрүа bezala maita, zer ütopia ! Ez gira hüllanik ere hortara heltüririk, ez eta heltzeko mezperan. Xede hori beti aitzinean iheska ikusiren dügü, zelümüga bezala. Bena horren bila ibiliz, aitzina joanen gira, eta gure heinean üngürüko mündüa hobetzen ahal dükegü, gure бүрүarekin batean.

Jesüsek bere programa eta egitarau iraültzalea lehentze agertü züan Nazareten, bere herriko sinagogan, Isai profetaren libürüko zati hau parropianter irakurtzez :

« Jaunaren ezpiritüa gainean düit, Jaunak kontsekratü naialakoz, igorri nai behartsüer berrihonaren mezützera, presonerer librantxaren eta ütsüer ikusmenaren oihüstatzera, zapatüen libratzera... »

Egün hortan bizi püblikoan sartüririk, berehala noren alte zen erakutsi züan elez eta obraz, beharrünantak ahal oroz lagüntzez : eri, praube, prostitüta, legar (zerga) biltzale...hots gisa batez edo bestez malerus eta bazter ützirik, mesperetxatüririk ziren jenteak süstengi zütüan tai gabe. Hori dügü Jesüsek hasi züan iraültza, ürrentzerik gabekoa, beharrünantak beti beitira, eta izanen ere maleruski : mündü zabalean ikus dirogün bezala, iraültza bortitzek praube süerte zonbait goratzen dütüe, bena beste mota elibat sortzen.

Jesüsek samariar hona etsenplützat eman deikü. Alta jüdüentzat – eta Jesüs ere jüdüa edo jüdüoa zen – samariar hori arrotza zen, eta gaineala heretika, errelijionean bide okerretik zabilana Jesüsen ustez ere, hots bi gisa horiez jüdüen etsaia. Halere samariarra bidajez bazoalarik Jüdean gainti, Jerüsalemerik hüllan, bide bazterrean gizon bat hedailo ikusi züanean, hüllantü zeion, ahal bezala artatü züan, eta lehen ostaatüala eraman, ostalera azkartü arte soeina lezan haren bizkar.

Ez züan txerkatü gizon hori nor zen : jüdüoa zatekean güne hortan, bena zernahi gisaz ere jente bat, lagüngo beharretan, eta kito ! Berehala, beste kalkülik gabe, behar zena egin züan. Etsenplü hona, eta franko jarraikia ere : bide horietan nekezian agitü nizan aldikal, panan edo herratüririk, Frantzian, Espainian ala Eüskal Herrian, egünaz ala gaüaz, beti norbait jin zait lagüntzera eta berriz bide xüxenean ezartera.

Jente honik bada nonahi, behar ere, bestelan ezin bizia günüke ! Üsüan mihia dügü gaiztoenik, bihotza iruski ez hainbeste. Azkenean egiten dena da konta, nahiz eleak ere hobeki egartea merexi lükean. Dena dela, Jesüsek piztüriko iraültza martxan da, haren ezpiritüa lanean ari da kiristi ez direnen beitan ere. Berri hona da segür, aitzina joaiten lagüntü behar gütüana, gü eta gurekin mündüa. Tai gabeko, etengabeko iraültza !

Jean-Louis Davant

(Jainkoa, bizia, jendea)